

# Bigarren Irakaskuntzaren garapena Gipuzkoan XIX. mendean

(Development of Secondary Education in Gipuzkoa in  
the 19th Century)

Camino Ortiz de Barrón, Igor

UPV/EHU. Irakasleen U.E. Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila.  
Juan Ibáñez de Sto. Domingo, 1. 01006 Vitoria – Gasteiz

BIBLID [1137-4446 (2008), 16; 317-347]

Jaso: 07.07.20  
Onartu: 07.12.03

---

*Bigarren Irakaskuntzak Gipuzkoan XIX. mendean erakutsi zuen garapenari buruz hitz egiteak zenbait herrialde nagusi aipatzea suposatzen du; horien artean Bergara bereziki azpimarratu behar da, hor sortu eta garatu baitzen Bigarren Irakaskuntza horren ofizialtasuna erakutsi zuen Ikastegia. Donostiak ere, hezkuntzari begira, gero eta interes handiagoa erakutsi zuen hiriak berak eskaintzen zuen garapen soziokulturalarekin bat etorriko zen irakas-kategoria bereganatu eta eskaini ahal izateko.*

*Giltza-Hitzak: Bigarren Irakaskuntza. Legegintza. Ikasketa planak. Gipuzkoa. Bergara. Donostia.*

*Hablar sobre el desarrollo que tuvo la Segunda Enseñanza en la Gipuzkoa del siglo XIX supone mencionar determinadas comarcas; entre todas ellas, Bergara debería ser objeto de mención especial, puesto que fue allí donde se constituyó y desarrolló el Centro de Enseñanza que dio a conocer la oficialidad de la Segunda Enseñanza. También Donostia fue una ciudad que mostró un interés cada vez mayor por la enseñanza, a fin de apropiarse y ofrecer una categoría de enseñanza acorde con su desarrollo sociocultural.*

*Palabras Clave: Enseñanza Secundaria. Legislación. Planes de estudios. Guipúzcoa. Bergara. San Sebastián.*

*Parler du développement de l'Enseignement Secondaire au Gipuzkoa au XIXe siècle c'est faire référence à certaines villes, telles que Bergara, qu'il convient de mentionner tout spécialement, puisque c'est là qu'est créé et ouvert le premier Etablissement Scolaire d'Enseignement Secondaire. Donostia-San Sebastián fut également une ville intéressée par l'enseignement, soucieuse de s'approprier et de pouvoir offrir un enseignement à la hauteur de son développement socioculturel.*

*Mots Clé : Enseignement Secondaire. Législation. Plans d'Études. Gipuzkoa. Bergara. San Sebastián.*

## 1. MARKO HISTORIKO-KONTZEPTUALA

Bigarren irakaskuntzaren garapen prozesuari begira Gipuzkoak erakusten duen egoera modu egokian ulertu ahal izateko beharrezkoa izango da, modu laburrean izango bada ere, aipatutako hezkuntza mailaren sorrera eta ondorengo garapena ahalbideratzen duten marko historiko-kontzeptualaren berri ematea. Horretarako, kasualitatearekin lotutako argudio edo arrazoiak baztertuz, kausalitatezko lerro batzuk ezartzea bilatuko dugu, horiek bigarren irakaskuntzaren jatorriaren inguruko gertaerak eta garaiko egoera soziopolitikoak nagusiki ordezkatzen duten aspektuak uztartuz lagunduko digutelarik.

Lehenik eta behin, bigarren irakaskuntza XIX. mendearen erdialdean sustatu egin zela aipatzea beharrezkoa da; XVIII. mendetik XIX. mendera zeharkatzeak, Espainian, aintzinako gizarte estamantaletik burgesiak ordezkatutako batera pasatzea suposatzen zuen, azkenengo hori aro garaikidearen ardatz nagusia suposatuko duelarik. Gizarte burges horrek liberalismoaren aldarrikapenarekin oinarri sendoa aurkitu zuen; liberalismo horrek hezkuntza arloan hain zuzen ere erakutsi zituen ideiek egitura berri bat eraikitzeo aukera eman zuten; egitura berri horren baitan, bigarren irakaskuntzaren kasuan, Puelles Benitez-ek adierazten duen moduan,

representaba una reivindicación del ideal revolucionario liberal, una segunda enseñanza con una finalidad propia y que, como tal, debía extenderse, en lo posible, a todos los ciudadanos<sup>1</sup>.

### 1.1. Cadizeko Konstituzioa (1812) eta Quintana txostena (1813)

Frantzia gertatutako iraultzaren ondorioz ezarritako arauak eragin handia eduki zuten Espainiako lehenengo konstituzio testuan. Cadizeko Gorteeak, 1812. urteko konstituzioan irakaskuntza arloari arreta berezia eskaini zioten, batez ere bere IX. tituluan.

Aipaturiko konstituzio hori aldarrikatuta, Erregentzia instrukzio publikoaren arlo guztiak zuzenduko zituzten arau batzuk ezartzen saiatu zen; helburu horrekin garai hartako hezkuntza egoerari buruzko zenbait txosten egin eta aurkezteko eskaera luzatu zuen, honi erantzuteko Instrukzio Publikoko Batzarrak txosten baten aurkeztepena egin zuelarik. Aurkeztutako txosten horretan zenbait pertsonen sinadura agertzen bazen ere, erraz antzeman zitekeen Quintana zela horren autore nagusia. Hori dela eta, aipatutako txostenari bere izena jarri zioten: "Quintana Txostena" (1813/9/9). Horrek jasotzen zituen puntu desberdinen artean, bigarren irakaskuntzaren antolakuntza proposamen zehatza ere agertzen zen, ardatz moduan lanbide liberal baten oinarria suposatzen zuten zientzien ikasketarako prestatzea edukiko zuena, bide batez nazio aurreratu baten ilustraziorako eta garapenarako hazia ere landatuz.

---

1. PUELLES BENITEZ, M. (1991). *Educación e Ideología en la España Contemporánea (1767-1975)*. Madrid: Labor, 91; orr. 6. oharra.

Bigarren Irakaskuntza horretarako “Probintziazko Unibertsitateak”<sup>2</sup> sortzea proposatzen zen, modu berean plan honen kontra agertuko ziren zailtasunak ere iragarritz<sup>3</sup>.

Beraz, txosten horretatik ateratako ondorioak aztertuz, esan behar da pozez hartu zela bigarren irakaskuntza maila horren proposamena, horren falta baitzen, Batzarrak berak argudiatu zuenez, Espainiak erakusten zuen atzerapenaren errudun nagusietako bat.

Quintana Txostena, beraz, hortik aurrera hasi eta oztopoei aurre eginez garatuko zen prozesu gogor baten abiapuntutzat jo behar dugu. Oztopo horiek gainditu beharrean zeuden txostenean adierazten ziren desio eta ilusio horiek guztiak errealitate bihurtu nahi bazituzten.

## 1.2. Instrukzio publikoko araudi orokorra (1821)

Bidean geldiene asko agertu ziren, batez ere absolutismoaren itzulerak eraginda<sup>4</sup>; hala ere, geldiene horiek gaindituta, 1820-21era iritsi zen, urte horretan burgesiaren mendekua gertatu zelarik<sup>5</sup>: altxamendua, iraultza eta garaipena.

Aldaketa politikoa horrek ondorio asko ekarri zituen, horietako asko hezkuntza arloan, bigarren irakaskuntzaren sorrera azkartuz: Gorteek, hezkuntza arloan, beraien kompetentziak berreskuratu zituzten. Une horretan, hasieran behintzat zuhurtziz jokatu nahian, behin behineko moduan 1807eko plana berreskuratzea erabaki zuten. Hala ere, beraien benetako helburua irakaskuntza modu organikoan erregulatzea zen. Instrukzio Publikoko Batzarrak Quintana Txostena iturritzat hartu zuen, horren inguruko debatea aurrera eramane eta zenbait aspekturen zuzenketa proposatuz. Hori dela eta, 1821ko ekainaren 29an, LXXXI. Dekretoa aldarrikatu zen, “Instrukzio Publikoko Araudi Orokorra” izeneko izenburua erakutsi zuena. Horren barruko III. Tituloak azterketa objektu moduan bigarren irakaskuntza hartzen zuen. Hori aurrera eramango zuten zentroek “Probintziazko Unibertsitate” izena edukiko zuten:

En todas las Universidades de Provincia destinadas a la segunda enseñanza se establecerán las cátedras siguientes: dos de gramática castellana y de lengua latina; una de geografía y cronología; dos de literatura e historia; dos de matemáticas puras; una de física; una de química; una de mineralogía y geología; una de botánica y de agricultura; una de zoología; una de lógica y gramática general; una de economía política y estadística; una de moral y derecho natural; una de derecho público y Constitución<sup>6</sup>.

2. Ibidem, 387. orr

3. Ibidem, 394. orr.

4. Absolutismoaren itzulerak lehengo ikasketa plan batzuk berreskuratzea suposatu zuen, 1807 eta 1771 urteetakoak hain zuzen ere.

5. SECO SERRANO, C. (1968). Introducción al t. XXVI de la Historia de España (dirigida por Ramón Menéndez Pidal). Madrid: Espasa-Calpe; XIX. orr.

6. Instrukzio Publikoko Araudi Orokorra (1821), Madril, 6. orr.

Probintzia bakoitzean horrelako unibertsiteate bat egongo zen, Espainiar Amerika eta Filipinas-en ere batzuk ezarriko zirelarik:

las de la Península se establecerán en Salamanca, Santiago, Oviedo, Valladolid, Zaragoza, Barcelona, Valencia, Granada, Sevilla y Madrid; la de Baleares en Palma, y la de Canarias en La Laguna; y las de Ultramar en Mexico, San Luis de Potosí, Guadalajara, Mérida de Yucatán, Saltillo, Chihuahua, Valladolid de Mechoakan, Durango, Oajaca, Santa Fe del Nuevo México, Goatemala, León de Nicaragua, Manila, Habana, Lima, Charcas, Santiago, Santa Fe de Bogotá, Quito, Cuzco, Panamá y Cartagena de Indias<sup>7</sup>.

Erreakzio absolutistaren beste saiakera bat gertatu ondoren, berriro ere prozesuaren moteltzea suposatu zuena, 1833an Fernando VII.aren heriotzak aldaketa esanguratsuen hasiera ekarri zuen; horien artean, 1834ko urtarrilaren 15ean Martínez de la Rosa-ren kabinetearekin, Erregetzak errejimen absolutista mantentzeari uko egin zion, burgesiaren aldeko sistema politikoaren zabaltea onartuz<sup>8</sup>. Liberalentzat gertaera arrakastatsu honek bigarren irakaskuntzaren zabalte eta kontsolidatze prozesua bermatzeko aukera suposatu zuen.

### 1.3. Calomarde plana (1824)

1824. urtean bigarren irakaskuntzaren inguruan zenbait aldaketa elementu erakutsiko zuen plan bat agertu zen, Calomarde Plana hain zuzen ere (1824/II/13); bere aspektu nagusien artean lehen aipatutako Probintziazko Unibertsiteateen desagerpena proposatu zuen; honen inguruan, azpimarratu behar da erabateko desagerpenaz baino gehiago, horien birplanteamendu batetaz hitz egiten zela, hasiera batean Humanitate Ikastegi bihurtuz eta azkenik Bigarren Irakaskuntzaren Instituto moduan agertuz XIX. mendearen erdialdean.

Hortik aurrera, Bigarren Irakaskuntzaren finkapen prozesuan adierazgarritzat jo beharreko zenbait erreferentzia puntu agertzen zaizkigu: horietako batzuek beren aplikazioa lortu zuten, eta beste batzuk, ordea, paperean idatzita bakarrik geratu ziren.

### 1.4. Rivas Dukearen plana (1836)

Lehenengo erreferentzia Rivas Dukearen ekarpenean bilatu behar dugu, 1836. urtean agertutakoan hain zuzen ere; urte horretan Dukeak Ministeritzaren titularitatearen ardura erakusten zuen. Bere planak laguntza handia suposatu zuen bigarren irakaskuntza edo "bigarren mailako instrukzio publikoa"<sup>9</sup>-ren antolamendurako. Beste irakaskuntza mailekiko izaera askea erakutsi behar zuen

7. Ibidem: IV. Tituloa, 40. orr.

8. ARTOLA, M. (1974). *Partidos y programas políticos, 1808-1936*, t.I, Madril: Aguilar; 219. orr.

9. Rivas Dukearen plan horretan izen hori agertzen zen.

bigarren mailako instrukzioaz hitz egiten zuen; bi maila desberdin bereizten zituen:

- Oinarrizko instrukzioa: Oinarrizko Instituto izeneko ikastegietan garatuko zena.
- Goi mailako instrukzioa: Goi Mailako Institutoetan garatuko zena.

Oinarrizko instrukzioan jarraitu beharreko curriculum-ak ondoko ikasgai hauek edukiko zituen: Espainiar eta Latinezko Gramatika, Geografia-kronologia eta Historia, Historia Naturala, Fisika eta Kimika, Mekanika eta Astronomia Fisika, Espainiar Literatura, Ideologia, Erlijioa, Moral eta Politika, eta Marrazketa Naturala eta Lineala.

Goi mailako instrukzioak curriculum berdina erakusten zuen, baina aipatutako ikasgaiak sakontasun handiagoz lantzen ziren eta gainera beste ikasgai praktiko batzuk ere eskaintzen ziren, hala nola Ekonomia, Politika, Zuzenbide Naturala edo Administrazioa.

Rivas Dukearen planean proposatutako bi instrukzio mota horiei dagokien aspektu nagusietako bat finantziaketarena zen: oinarrizkoaren kasuan Probintziek erantzun behar zieten gastuei; goi mailako instrukzioan, ordea, gastuak Estatuaren esku geratzen ziren.

Plan hori garai hartako gobernuaren bukaeragatik ezezik, ekonomi eta egiturazko arazoengatik ere indargabeturik geratu zen. Horrek sortu zuen arazoaren aurrean, eta bigarren irakaskuntzako ikasketen antolakuntzan hutsune gera ez zedin, proposatu zen 1836ko plan hori beste urtebetez mantentzea. Hala ere, ondorengo beste plan proposamen batzuk aprobatuak izan ez zirenez, hasiera batean urtebeterako bakarrik luzatu behar zen plan hori azkenean beste bederatzire urtez zabaldu zen, 1845. urtera iritsi arte.

## **1.5. Pidal plana (1845)**

1845. urte horrek bigarren erreferentzia nagusia suposatu zuen bigarren irakaskuntzaren garapenerako Espainian. Urte horrek Bigarren Irakaskuntzako Institutoen sorrera suposatu zuen, Pidal izeneko planean ezarritakoaren bitartez; egia esateko, zuzenagoa da Pidal-Gil de Zárate bikoteaz hitz egitea, bien arteko lanak bakarrik posible egin baitzuen lan hori aurrera atera ahal izatea.

Aipatutako plan horretan bigarren irakaskuntzaren garrantzia azpimarratzen zen, berriro ere klase ertainei zuzendua aurkezten zelarik. Plan honen lorpenik handiena ordurarte etengabe gertatu ziren erreforma guztiei koherentzia ematen lortzea izan zen.

Esan daiteke hezkuntza lehenengo aldiz prozesuaren protagonista bihurtu zela, lehenengo aldiz hezkuntza beharrei buruzko hausnarketa eta horien ingu-

ruko prospektiba lan bat ere egin nahi izan zen, denboran zehar ahalik eta gehien mantenduko ziren aurrerapen batzuk lortu nahian. Aurretik aipatu den bezala, lehenengo aldiz hezkuntza protagonista agertu zela frogatzen duen gertaera bat honako hau da: Unibertsitateei planean agertu beharreko aspektuei buruz galdetu zitzairen, adituen iritzia jaso eta Instrukzio Publikoko Batzarraren informazio asko ere jaso zen. Horretaz gain, plana diseinatu ondoren ere, kontsulta berriak egin ziren zuzendu edo hobetzekoak izan zitezkeen aspektuak aurkitzeko.

Beraz, Pidal Plana eraginik handiena utzi zuen horietako bat izan zen, Instrukzio Publiko arloko Administrazio Orokorren zentralizazio funtzioa erakutsiz ere. Aipaturiko zentralizazioa ikasketa plan, irakaskuntza metodo eta ikastegi administrazioa posible egingo zuten diru laguntzen kontrol zorrotzean isladatu zen batez ere. Aurretik agertutako beste ikasketa plan batzuekin konparatuz, honetan testu liburuak Instrukzio Publikoko Kontseiluak proposatutakoak izan ziren; horrek, obra batzuek osatutako zerrenda bat elaboratu zuen eta irakasleak, horien artean, bere interesekoak aukeratu behar zituen, zerrenda hori hiru urte pasatzean errebisatu behar zelarik<sup>10</sup>.

Adierazi den moduan, dena oinarri nagusi baten menpe agertzearen garrantzia bereziki azpimarratu zen, oinarri hori Instrukzio Publikoko Ministeritza izan behar zuelarik. Horrek emandako aginduak errealitatean betetzen zirenentz konprobatzeko, inspektore eta jefe politiko sare bat osatu zen; ikastegi bakoitzeko arlo akademikoarekin lotutakoa kudeatzeko, Errektore, Dekano eta Zuzendarien figurak agertzen ziren.

Pidal Planak finkapen efektua erakutsi zuen, aurretik aipatutako bi mailen ideia azpimarratuz: oinarrizkoa eta sakontzekoa. Bigarren irakaskuntza eskainiko zuten ikastegi publikoek Instituto izena mantendu zuten, baina horien artean hiru mota bereizten zituen:

- Lehenengo edo Goi Mailakoak
- Bigarren Mailakoak
- Hirugarren mailakoak

Honi dagokionez, argituko dugu kategoria horiek esleitzeko modua Institutoak jasoko zituzten hiri edo probintzien ospearekin lotuta zegoela; modu honetan, lehenengo edo goi mailako Institutoetaz hitz egiteak hiriburu nagusiar, Madrili hain zuten ere, erreferentzia egitea suposatzen zuen. Bigarren mailakoak probintzietako hiriburuetan kokatutakoak izango ziren, eta hirugarren mailakoak gainontzeko herrialdeetan kokaturik agertzen ziren, Probintzial kategoria hori erakutsi gabe, noski.

---

10. VIÑAO FRAGO, A. (1982): Política y Educación en los orígenes de la España Contemporánea. Madrid, XIX. mendea, 63. orr.

Probintzia bakoitzak oinarritzko ikasketak eskainiko zituen Instituto bat gutxienez eduki behar zuen, eta horietako batzuetan aplikaziozko ikasketak ere eskaini behar ziren. Instituto Probintzialek probintzien finantziarioa jaso behar zuten. Hirugarren mailako kasuan, ordea, herrialde edo munizipioen finantziarioa jasoko zuten.

Bigarren Irakaskuntzako ikastegi pribatuei zegokienez, ezinbesteko baldintza batzuk markatu ziren horiek ireki ahal izateko; baldintza horien artean, nagusiki azpimarratu behar da Gobernuaren baimena behar zutela, eta horretaz gain, gertuen zegoen Instituto Probintzialaren menpe agertu behar zuten, modu horretan bakarrik lortuko baitzuten balio akademikoa. Edozein kasutan ere, ikastegi pribatu horiek ezin zuten inolaz ere Instituto izena erabili; Ikastetxe, Lizeo edo beste-lako izenaren bat erakutsi behar zuten.

Pidal Planean bigarren irakaskuntzaren inguruan eskaintzen zen planteamenduak bost urte erakusten zituen, horietan zehar batez ere hiru ezagutza multzo ikasiko zirelarik: lehenengoari aspektu filologikoetakoa deitu geniezaioke: Latin, Gaztelania eta Frantsesa; bigarren multzoan Matematika, Fisika, Kimika eta Historia Naturala, eta hirugarren multzoan Geografia eta Historia, Erlijioa eta Psikologia.

Plan honi ondorengo urteetan egin zitzaizkion erreformak ez ziren izan planaren izaeragatik, baizik eta praktikan horren funtzionamendu egokirako aurkitzen ziren oztupoengatik. Ekarpen berezi moduan, 1850 urtean egin zen erreforma aipatuko dugu: horretan bigarren irakaskuntza planteamenduari batera joango zen lanbide heziketaren sorreraz hitz egin zen. Modu horretan Eskola Bereziak sortu ziren: Nautika Eskolak, Komertzio, Arte Ederrak, Nekazaritza eta Industria Eskolak.

## 1.6. Moyano Legea (1857)

Askotan aldaketa txikiak suposatzen bazituzten ere, argi zegoen erreforma asko zirela etengabe sortzen ari zirenak. 1845 eta 1852. urteen artean hain zuzen ere, bost erreforma kontabilizatu ziren. Nabarmen agertzen zen egoera hori konpondu ahal izateko ahalegin handia egiteko beharra. Ahalegin horren ondorioz 1857ko uztailaren 17aren Oinarri Legea sortu zen, Claudio Moyano-k kudeatu zuzen legea.

Lege horren aspekturik esanguratsuenak honako hauek izan ziren: sei urtetatik bederatzi urtetara zihoan irakaskuntza prozesuaren derrigortasuna, hori ordaintzeko aukerarik ez zutenentzat dohainekoa izatea, maisuentzako Eskola Normalak egitea eta irakaskuntza pribatuaren eta erlijiosoaren babes, horretan agertzen ziren dozente erlijiosoei titulu eskatuko ez zitzaizela. Horietaz gain, irakaskuntza prozesuan Estatuak eta Elizak eskaini beharreko edukin kontrola egingo zuten. Irakaskuntzaren kontrola zentralizatzeko desioa mantentzen zen, baina kasu horretan kontrola Fomento Ministeritzaren esku geratuko zen<sup>11</sup>.

---

11. VIÑAO FRAGO, A. (1982): op. cit. 112. orr.

Moyano Legeak bigarren irakaskuntzako ikasketetan bi epe bereiztu zituen: batek ikasketa orokorrak jaso zituen eta besteak aplikaziozkoak, horietan Nekazaritza, Arte, Industria, Komertzio eta Nautika ikasketak agertzen zirelarik:

- Ikasketa orokorrek sei urteko iraupena erakusten zuten, bi epetan banaturik: horietako lehenengoak bi urte zituen eta bigarrenak lau urte. Sei urte horiek bukatzean, Arte arloko Batxilergoa lortzeari begira planteatzen zen azterketa bat egin behar zen. Aipaturiko epea bukatzean, ikasketa orokorrarena hain zuzen ere, nahi izanez gero beste bi kurtso egiteko aukera agertzen zen Goi Mailako ikasketetara pasatu nahi zuten horientzat<sup>12</sup>.

Aipatu behar da Moyano Legeak bigarren irakaskuntzan sartu ahal izateko bederatzi urteko adina kontenplazten zuela, sarrera azterketa bat burutu behar zelarik.

- Aplikaziozko ikasketei zegokienez, hauetan hamar urte edukitzean sartzeko aukera agertzen zen, lehen mailako irakaskuntzaren azterketa bat burutu behar zelarik. Ikasketa hauek egin nahi zituztenek beste kurtso bat gehiago egin behar zuten lehen mailako irakaskuntzan, horren bidez aplikaziozkoetan sartzea erraztuko zuten zenbait lan garatuko zirelarik. Ikasketa horiek erakusten zuten orientazioa lanbide bat garatzeari begira agertzen zen, bukatzean Goi Mailako eta Lanbide Eskoletan jarraitzeko aukera ere agertuz.

Aplikaziozko ikasketa horietan agertzen zen eskakizun maila, orokorretakoenarekin konparatuz behintzat, bazuagoa zen; hori frogatzeko aipatu behar da ez zela bukaerako azterketarik egiten, eta ez zen beharrezkoa ere kurtso bakoitza gainditzea. Ikasketa horiek bukatzean zegokion karreran Perito Tituloa lortzen zen. Eskainitako curriculum oso praktikoa zen: Marrazketa Lineala, Nekazaritza, Merkatal Aritmetika eta aipaturiko nekazaritza, arte, nautika, komertzio eta industriarekin lotutako beste ezagutza batzuk<sup>13</sup>.

Lehen adierazitako hiru instituto kategoriak mantentzen ziren, horien barruko probintzial eta herrikoen arteko bereizketa ere mantenduz.

Moyano Legea 1857 urtean onartu bazen ere, behin behineko moduan funtzionatzen hasi zen, 1858 urtean behin betiko bihurtuz, horrekin batera ikasketa orokorretan lehen aipaturiko epeak ezabatu zirelarik. Modu horretan, bost urtetako epe bakar bat geratu zen, ondoren goi mailako ikasketetan sartzeko prestakuntza beste kurtso bat egin behar zelarik.

---

12. SANZ DIAZ, F. (1985): La segunda enseñanza oficial en el siglo XIX. MEC, 226-227. orr.

13. Ibidem, 232-236. orr.



### **1.7. Irakaskuntza Askatasunaren Legea (1868)**

Urte batzuk beranduago, 1868 urtean hain zuzen ere, Iraultza Seiurtekoaren garaia iritsi zen, historian erritmo aldaketa garrantzitsu bat gertatuz, liberalismo-tik demokraziarako igarotzea gertatu baitzen. Askatasunaren balioa azpimarratu nahi zen bereziki eta horrek ere hezkuntza arloan islada eduki zuen, Irakaskuntza Askatasunaren Legea sortuz. Honek batez ere deszentralizazioa bilatu zuen, ikas-tegi berriak sortu ahal izateko askatasun handia eskainiz. Horretaz gain, ikasleak ere bere behar edo interesen arabera curriculum bat garatzeko aukera edukitzea bilatu nahi zuen.

1868ko Lege horrek bigarren irakaskuntzaren birrantolaketa ekarri zuen, sei urteko iraupena ezarriz, horren barruan hiru urteko bi epe agertuko zirelarik. Goi Mailako ikasketetan jarraitu ahal izateko ez zen prestakuntza kurtso bat egin behar.

Ikasleak bere behar eta interesen arabera curriculuma garatzeko aukera hori honako bi aukera hauetan gauzatzen zen:

- Lehenengo aukeran latina barne hartzen zuen ikasketa plan bat agertzen zen.
- Bigarren aukeran latina desagertzen zen, eta nazio hizkuntza bultzatzen zen. Historia eta Artea ere agertzen ziren, eta Filosofia ikaslearen nortasun garapenarako oinarri garrantzitsu bihurtu egin zen. Adierazgarria zen hizkuntzak ez agertzea, eta Zuzenbideari buruzko interes handia konprobatez: Zuzenbide Nozioak, Espainiar Zuzenbide Zibila, Espainiar Zuzenbide Politiko-administratiboa...<sup>14</sup>

### **1.8. 1880eko Plana**

Erreforma saiakera desberdinak egon ondoren, gehiegi luzatzea ekiditeko aipatuko ez ditugunak, bigarren irakaskuntzaren arloan benetako erreforma kontsideratu zena 1880 urtean iritsi zen. Urte horretan aurkeztu zen planaren adierazgarri nagusia bere sinpletasuna zen, helburu handiegirik eta utopikoegegirik bilatzen ez zuen plan bat. Plan hori 1880tik 1894ra indarrean mantendu zen. Honako hauek ziren bere ezaugarriak: bigarren irakaskuntzak bost urteko iraupena edukiko zuen, ez zen exijitzen gutxieneko adin bat batxilergoan sartu ahal izateko, plan horretan ikasgai gutxi agertzen ziren, ikasketa horiek garatzea oso garestia ez izatea suposatzen zuena. Hona hemen aipatutako bost urteetan agertzen ziren ikasgaien banaketa erakusten digun koadro bat:

---

14. SANZ DÍAZ, F.: op. cit. 307-348. orr.

### Bigarren Irakaskuntzako Ikasketen Antolamendurako 1880ko Plana

<b>LEHEN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Latin eta Gaztelania</li><li>• Geografia</li></ul>
<b>BIGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Latin eta Gaztelania</li><li>• Espainiako Historia</li></ul>
<b>HIRUGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Erretorika eta Poetika</li><li>• Aritmetika eta Algebra</li><li>• Historia Unibertsala</li><li>• Frantsesa</li></ul>
<b>LAUGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Psikologia</li><li>• Logika eta Filosofia Morala</li><li>• Geometria eta Trigonometria</li><li>• Frantsesa</li></ul>
<b>BOSTGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Fisika eta Kimika</li><li>• Historia Naturala</li><li>• Fisiologia eta Higienea</li><li>• Nekazaritza</li></ul>

1880 urteko erreformak, Europako beste herrialde batzuetan gertatzen zenarekin konparatuz, hutsune handiak erakusten zituen, garai hartako eguneratze prozesuak erakusten zituen beharrei erantzuteko ezintasunean geratzen zelarik; Espainian oso zaila gertatzen zen eguneratze horri erantzun ahal izatea, aspalditik agertzen baitzen atzerapen egoera larria.

Baina horiek ziren garai hartako hezkuntza joerak: ikasketa simple eta merkeak lortzeko nahia; hori izan daiteke hain zuzen ere 1880 urteko plana hainbeste urtez mantentzearena justifika dezakeen arrazoia. Lehen adierazi dugun moduan, 1894 urtera iritsi arte mantendu zen.

#### 1.9. Groizard-en Ikasketa Plana (1894)

Urte horretako irailaren 16an hain zuzen ere Groizard-ek proposatutako dekretu bat sinatu zen. Kasu honetan batxilergoa berriro bi epetan banatu zen: ikasketa orokorrak, guztientzako oinarrizko kulturaren ardatz nagusiak eskainiko zituena, eta prestakuntza ikasketa batzuk, ondoren Unibertsitateetan sartuko ziren ikasleentzako kultura sendoa landuko zutenak.

### Groizard-ek Proposatutako Ikasketa Plana (1894)

<b>IKASKETA OROKORRAK</b>	
<p><b>LEHEN URTEA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Latin eta Gaztelania</li> <li>• Frantsesa</li> <li>• Matematika</li> <li>• Geografia</li> <li>• Espainiako Historia</li> <li>• Kaligrafia</li> <li>• Marrazketa</li> <li>• Gimnasia</li> </ul> <p><b>BIGARREN URTEA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Latin eta Gaztelania</li> <li>• Frantsesa</li> <li>• Matematika</li> <li>• Geografia</li> <li>• Historia Unibertsala</li> <li>• Kaligrafia</li> <li>• Marrazketa</li> <li>• Gimnasia</li> </ul>	<p><b>HIRUGARREN URTEA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Latin eta Gaztelania</li> <li>• Matematika</li> <li>• Fisika Nozioak</li> <li>• Oinarrizko Psikologia</li> <li>• Historia Naturalaren Kuadroak</li> <li>• Marrazketa</li> <li>• Gimnasia</li> </ul> <p><b>LAUGARREN URTEA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kimika Nozioak</li> <li>• Lojika eta Etika Printzipioak</li> <li>• Ohiko Zuzenbidearen Nozioak</li> <li>• Organografia eta Fisiologia</li> <li>• Agronomia eta Industria Nagusien Nozioak</li> <li>• Marrazketa</li> <li>• Gimnasia</li> </ul>
<b>PRESTAKUNTZA IKASKETAK</b>	
<p><b>ZIENTZIA MORALEN ARLOA</b></p> <p><b>LEHEN URTEA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Latinaren sakontzea</li> <li>• Antropologia eta Psikologia</li> <li>• Estetika eta Artearen Teoria</li> </ul> <p><b>BIGARREN URTEA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hizkuntza Grekoaren oinarri lexigrafikoak</li> <li>• Sociologia eta Zientzia Etikoak</li> <li>• Sistema Filosofikoak</li> <li>• Literaturaren Oinarrizko Historia</li> </ul>	<p><b>ZIENTZIA FISIKO-NATURELEN ARLOA</b></p> <p><b>LEHEN URTEA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Latinaren sakontzea</li> <li>• Matematikaren sakontzea</li> <li>• Minerologia eta Geologia</li> </ul> <p><b>BIGARREN URTEA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hizkuntza Grekoaren oinarri lexigrafikoak</li> <li>• Matematikaren sakontzea</li> <li>• Fisikaren sakontzea</li> <li>• Kimikaren sakontzea</li> <li>• Botanika eta Zoologia</li> </ul>

Groizard-en erreformak beste berrikuntza pedagogiko saiakera bat suposatu zuen, Espainiak erakusten zuen iluntasun egoera horri argia emateko saiakera bat. Aspektu metodologikoak izan ziren sakonki aztertu zirenak: ezagutzaren mailaz mailako lorpena, ikasgaiak eta ariketen errepikapena ikasleek ahalik eta ondoen uler zitzaten...

Errealitatean Institutoetako klaustroek oso harrera ona egin zioten dekretu horri. Agertzen ziren 59 institutoen artean, ez zegoen horrekiko adostasuna erakusten ez zuenik. Hala ere, eguneroko errealitate horretan zentratuz ere, gurasoen artean dekretu horrek ez zuen ilusio handirik piztu, ikasketen iraupenaren luzapena eta ondorioz egin beharreko gastuaren handitzea ere ikusten baitzuten. Hori zela eta, hasieratik agertu ziren dekretuaren etsai.

Erreforma horrek oso iraupen motza eduki zuen, 1895 urtean indargabetua izan zelarik; modu honetan, aztertu ditugun eta 1930 urtera iritsi arte aprobaturik ziren horien arteko erreformarik landuenari amaiera eman zitzaion. Adierazi dugun moduan, 1930 urtea iritsi arte itxoin beharko zen berriro sistema bifurkatu bat aurkitzeko.

### 1.10. Bosch-ek bigarren irakaskuntzarako proposatutako plana (1895)

1895 urteko uztailaren 10ean, Bosch-ek, orduko Fomento Ministeritzaren ardurak edukiz, bigarren irakaskuntzarako beste plan bat aurkeztu zuen. Honetan ikusiko dugun moduan, berriro ere gehiengoak desiratutako sinpletasun horretara bueltatu zen.

#### Bosch-ek Proposatutako Ikasketa Plana (1895)

<b>LEHEN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Latin eta Gaztelania</li><li>• Geografia</li><li>• Elijioa</li></ul>
<b>BIGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Latin eta Gaztelania</li><li>• Aritmetika eta Algebra</li><li>• Espainiako Historia</li></ul>
<b>HIRUGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Geometria eta Trigonometria</li><li>• Historia Unibertsala</li><li>• Frantsesa</li></ul>
<b>LAUGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Fisika eta Kimika</li><li>• Erretorika eta Poetika</li><li>• Frantsesa</li></ul>
<b>BOSTGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Psikologia, Lojika eta Filosofia Morala</li><li>• Historia Naturala</li><li>• Nekazaritza</li></ul>

- Ikasgai hauek Marrazketa eta Gimnasiarekin osatzeko aukera agertzen zen. Horietan matrikulatuz gero, ez zen azterketarik egiteko derrigortasunik agertzen.

Bigarren Irakaskuntza gehienek esku ager zedin, eta aipatutako sinpletasun hori erakutsi zezan, honako neurri hauek planteatu zituen: ikasketa horietan sartzeko hamar urte eduki behar zelako klausula kendu zuen, sei urteko iraupenetik bost urteko iraupenera pasatu zen, ikasgai kopurua ere ahalik eta gehien murrizten saiatuz. Beraz, berriro ere ikasketa sinple eta merke batzuk bilatzea agertzen zen helburu nagusi. Horrek, uler daitekeen moduan, ikastegi pribatu txikien artean, arrakasta handia eduki zuen, baita familia gehienek artean ere. Liberalek, ordea, gogor kritikatu zuten Groizard-en erreformaren indargabetzea, beraien ustez horrek berriro ere atzerapen egoera larrira bueltatzea suposatuko baitzuen.

Lehen aipatutakoaz gain, oraindik ere agertzen zen iskanbila handia ekarri zuen beste aspektu bat. Bosch-en planteamenduan erlijioa derrigorrezkoa zen.

Hurrengo hiru urteetan lasaitasun egoera bat bizi izan zen, baina 1898an Espainiak bere garaikidetasunaren gertaera larrienetako bati aurre egin behar izan zion: Estatu Batuen aurkako gerra eta kolonia inperioaren galera. Horrek krisialdi larria suposatu zuen, eta politika arloan aldaketa asko eman ziren ministeritza desberdinetan; aldaketa horien guztien ondorioz Germán Gamazo izan zen Fomento Ministeritzaren ardura hartu zuena.

### 1.1.1. Gamazoren plana (1898)

1898. urteko irailaren 13an Gamazok bigarren irakaskuntzaren ordenazio berri bat argitaratu zuen. Gamazok ere, bere lana justifikatzeko garaian, ekonomi arazoek ikasketen erabateko erreforma bat aurrera eramatea ekiditen zutela argudiatu zuen:

la reforma no tiene un carácter clásico o humanista ni moderno o utilitario; es pues, de un marcado eclecticismo, procurando compaginar todos los puntos de vista y modelos pedagógicos<sup>15</sup>.

#### Gamazo-k Bigarren Irakaskuntzarako Proposatutako Plana (1898)

<b>LEHEN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Geografia</li><li>• Aritmetika</li><li>• Kontabilitatea</li><li>• Gimnasia Fisiologia eta Higienearekin</li></ul>
<b>BIGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Gaztelania</li><li>• Geografia</li><li>• Aritmetika eta Algebra</li><li>• Literatura</li><li>• Marrazketa</li></ul>

15. SANZ DÍAZ, F.: Op. cit., 140. orr.

<b>HIRUGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Frantsesa</li> <li>• Espainiako Historia</li> <li>• Espaniar Literatura</li> <li>• Geometria eta Kontabilitatea</li> <li>• Marrazketa</li> <li>• Gimnasia Fisiologia eta Higienearekin</li> </ul>
<b>LAUGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Frantsesa</li> <li>• Latina</li> <li>• Historia Unibertsala</li> <li>• Geometria eta Trigonometria</li> <li>• Fisika</li> <li>• Kimika</li> </ul>
<b>BOSTGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Latina</li> <li>• Historia Unibertsala</li> <li>• Psikologia eta Lojika</li> <li>• Fisika</li> <li>• Zoologia</li> <li>• Kimika eta Mineralogia</li> </ul>
<b>SEIGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Latina</li> <li>• Etika eta Ohiko Zuzenbidea Ekonomia Politikoarekin</li> <li>• Artearen Teoria eta Historia</li> <li>• Zoologia</li> <li>• Botanika eta Nekazaritza</li> <li>• Industria eta Nekazaritza Teknika</li> </ul>

Hala ere, plan horretan Ministroaren borondate ona antzematen zen, sektore guztien nahiei erantzuteko borondatea hain zuzen ere; hala ere, errealitatean ez zituen inolako sektoreren nahiak bete. Errealitatean planak ikasgai kopurua handitzea suposatzen zuen, ikasgai gehiago ziren plan horretan agertzen zirenak, eta horrek ikasgaien edukinak lantzeko sakontasuna murriztea suposatu zuen.

Ikuspegi pedagogiko batetik beste akats kritikagarri batzuk ere agertzen ziren: ikasgai askok ez zuten jarraikortasunik erakusten; hori gertatzen zen adibidez Gimnasia edo Fisiologia eta Higiene bezalako ikasgaiekin, lehenengo kurtsoan agertzen zirenak, baina gero bigarren kurtsoan desagertu hirugarrenean berriro ere agertzeko. Horretaz gain, ikasgai berriak ere martxan jarri ziren kontuan hartu gabe horiek aurrera eramateko beharko ziren irakasleak eta aurrekontua, azken finean gatzeluak airean eraikitzea suposatzen zuena.

### **1.12. Pidal Markesaren plana (1899)**

Gamazok 1898 urriaren 22an dimititu zuen eta Pidal Markesa izan zen kargua hartu zuena. Horrek, aurrekoa indargabetu eta berri bat planteatu, edo aurreko horren disposizioak aprobetxatzeko aukeren artean, bigarren aukera horren alde-

ko apostua egin zuen: ikasgaien birrantolaketa bat garatu zuen, horietako batzuk ezabatuz eta indarrean geratu ziren horien kasuan kurtsu gehiago planteatuz: zazpi urte planteatu zuen, ondoko koadro honetan agertzen direnak:

**Pidal-ek Bigarren Irakaskuntzarako Proposatutako Ikasketa Plana (1899)**

<b>LEHEN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Matematika</li> <li>• Latin eta Gaztelania</li> <li>• Geografia eta Historia</li> <li>• Erlijioa</li> </ul>
<b>BIGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Matematika</li> <li>• Latin eta Gaztelania</li> <li>• Frantsesa</li> <li>• Geografia eta Historia</li> <li>• Erlijioa</li> </ul>
<b>HIRUGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Matematika</li> <li>• Latin eta Gaztelania</li> <li>• Frantsesa</li> <li>• Geografia eta Historia</li> <li>• Erlijioa</li> <li>• Natur Zientziak</li> </ul>
<b>LAUGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Matematika</li> <li>• Latin eta Gaztelania</li> <li>• Frantsesa</li> <li>• Geografia eta Historia</li> <li>• Erlijioa</li> <li>• Fisika Zientziak</li> <li>• Natur Zientziak</li> </ul>
<b>BOSTGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Matematika</li> <li>• Latin eta Gaztelania</li> <li>• Frantsesa</li> <li>• Geografia eta Historia</li> <li>• Fisika Zientziak</li> <li>• Natur Zientziak</li> </ul>
<b>SEIGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Matematika</li> <li>• Latin eta Gaztelania</li> <li>• Frantsesa</li> <li>• Geografia eta Historia</li> <li>• Filosofia</li> </ul>
<b>ZAZPIGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Geografia eta Historia</li> <li>• Filosofia</li> <li>• Fisika Zientziak</li> <li>• Natur Zientziak</li> </ul>

Izaera klasikoa erakusten zuen plan bat zen, latinaren nagusitasunarekin; plan simple bat, nahiz eta batzuen iritziz jakintzarako beharrezkoak ez ziren aspektu batzuk ere erakutsi. Joera kontserbadoreari erantzuten zion plan bat zen: ikasgai kopurua murriztu, umeei exijitzen zitzaiena gehiegizkoa kontsideratzen baitzuten; horretaz gain, lehen adierazi den moduan, batxilergo klasikoaren aldeko planteamendua egiten zuten, zientzien ikasketa bigarren maila batean utziz.

### 1.13. García Alix-ek proposatutako plana (1900)

Pidal-ek Fomento Ministeritzan bere postua uztean, bere ondorengoa García Alix izan zen, eta horrek ere bigarren irakaskuntzaren erreformari berehalak ekin zion. Batxilergo bikoitza edo bifurkatua ezartzeko ezintasuna aurkitu zuenez, izaera literario eta zientifikoaren arteko oreka egokia ziurtatuko zuen birrantolaketa bat planteatzea erabaki zuen.

#### García Alix-en Plana (1900)

<b>LEHEN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaztelania eta Latina</li> <li>• Geografia Astronomikoa, Fisika eta Politikaren Nozioak</li> <li>• Aritmetika Nozio eta ariketak</li> <li>• Erljioa</li> <li>• Marrazketa</li> <li>• Gimnasia</li> </ul>
<b>BIGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaztelania eta Latina</li> <li>• Oinarrizko Geografia Deskriptiboa eta Europakoa</li> <li>• Espainiako Historia</li> <li>• Geometria Nozio eta ariketak</li> <li>• Erljioa</li> <li>• Marrazketa</li> <li>• Gimnasia</li> </ul>
<b>HIRUGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oinarrizko Prezeptiba Literarioa</li> <li>• Oinarrizko Geografia Deskriptiboa eta Espainiakoa</li> <li>• Espainiako Historia</li> <li>• Aritmetika eta Algebra</li> <li>• Frantsesa</li> <li>• Erljioa</li> <li>• Marrazketa</li> <li>• Gimnasia</li> </ul>



<b>LAUGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Genero Literarioen Prezeptiba</li> <li>• Geografia Historiko, Komertzial eta Estatistikoa</li> <li>• Historia Unibertsala</li> <li>• Geometria Trigonometrikoa</li> <li>• Psikologia eta Lojika</li> <li>• Frantsesa</li> <li>• Erljioa</li> <li>• Marrazketa</li> <li>• Gimnasia</li> </ul>
<b>BOSTGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etika eta Soziologia</li> <li>• Literaturaren Historia Orokorraren Oinarriak</li> <li>• Fisika</li> <li>• Kimika</li> <li>• Historia Naturala</li> <li>• Ingelesa edo Alemaniera</li> <li>• Marrazketa</li> <li>• Gimnasia</li> </ul>
<b>SEIGARREN URTEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Fisika</li> <li>• Historia Naturala</li> <li>• Nekazaritza eta Nekazal eta Industria Teknika</li> <li>• Ohiko Zuzenbidea</li> <li>• Ingelesa edo Alemaniera</li> <li>• Gimnasia</li> </ul>

García Alix-en planak erakusten zuen modernizazio kutsua ez zen bere alderdikoek gustokoa izan, Pidal-ek proposatutako erreforma nahiago zutenak. Egia esateko, García Alix-en planean gustokoak suertatzen ez zirenak artikulo zehatz batzuk ziren, batez ere 24. artikuloa; horretan ezartzen zen ikastegi pribatuak sortzeko eta mantentzeko beharrezkoa izango zela irakasle koadroan gutxienez bost titulatu agertzea. Hori, noski, arazo larria zen kongregazio erlijioso askorenzat, erlijioso askok ez baitzuten Unibertsitateak emandako titulua erakusten.


Plan horren autorearen izena ezagutu gabe, esan zitekeen izaera liberala erakusten zuen erreforma bat zela. García Alix irakaskuntza ofizialaren garrantzia aldarrikatu zuen lehenengo ministro kontserbadorea izan zen.

Beraz, laburbilduz, sinpletasun handiko hezkuntza egoera baten aurrean geunden. Nazioak erakusten zuen atzerapen egoerarekiko kezka handia agertzen zen, baita aspektu ezezagunekiko beldurra ere, aldaketarekiko kezka, eta horrek, finean, aldatzeko beldurra suposatzen zuen.

## 2. BIGARREN IRAKASKUNTZA GIPUZKOAN

Gipuzkoan agertzen zen egoerari zegokienez, bigarren irakaskuntzaren konfigurazioan zenbait leku dira arreta bereziz azpimarratu behar direnak eta horrekin batera bigarren irakaskuntzak probintzian erakutsi zituen epe historikoak ere aztertu beharko ditugu. Egoera aurkeztu ahal izateko, adierazgarria izan daiteke populazio datuak erakustea<sup>16</sup>; datu horien inguruan batez ere nekazal guneetatik hiri guneetara ematen zen transitoa azpimarratzekoa da, horren arrazoi nagusia industralizazio prozesuan kokatu behar zelarik.

Populazio datuak Gipuzkoan (1857-1900)



Hasieran aipatu den moduan, bazeuden bigarren irakaskuntzaren konfigurazioan paper berezi bat bete zuten zenbait leku: horien artean, lehenik Tolosa aipatu behar dugu. XIX. mendearen erdialderarte arlo sozial eta kulturean osperik handieneko gertaerak erakutsi zituen lekua izan zen; ezin da ahaztu Tolosa izan zela probintziaren hiriburua 1855 urtera iritsi arte. Hurrengo urtean, probintziako hiriburua izatearen ospea Donostiara pasatu zen.

16. GARATE OJANGUREN, M. (1976). *El proceso de desarrollo económico en Guipúzcoa*. San Sebastián: Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Guipúzcoa, 269. orr.

## 2.1. Bergara: Bigarren Irakaskuntzako Instituto Probintzialaren jatorria

Irakaskuntzarekin lotutako ospea azpimarratu nahi badugu, derrigorrezkoa da Bergara aipatzea; Bergaran hain zuzen ere Bigarren Irakaskuntzako Instituto Probintzialaren sorrera eman zen, hori bigarren irakaskuntzaren arlo horretan probintziaren adierazgarririk nagusia izan zelarik.

Orokorrean bigarren irakaskuntzako Institutoak, aurreko puntuetan adierazi den moduan, probintzietako hiriburuetan kokatzen ziren; Gipuzkoako kasuan, ordea, arrazoi desberdinak zirela eta, Bergaran kokatu zen, aintzineko Erreal Mintegi baten ondoan. Modu horretan, Institutoak eta Bergarako Erreal Mintegiak, batera garatzen zen historia bakar bat suposatu zuten, biek instrukzio eta hezkuntza ikastegi bakar bat konfiguratu zuten.

Mendiola Querejeta-k, ikastegiak erakutsitako historiaz hitz egitean, lau etapa desberdin planteatzen ditu, ondoko aipamen honetan garbi isladatzen dituenak:

abarca la historia del Colegio, Seminario o Instituto de Vergara cuatro períodos: el primero desde 1593, fecha de su fundación por una dama genovesa, corre a cargo de los PP. de la Compañía de Jesús hasta 1767, año de la extinción de los Jesuitas. En la segunda época es regido el Establecimiento docente por la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País en virtud de Real Cédula otorgada por Carlos III en 1769; funciona con los nombres de Real Seminario y de Real Seminario Patriótico Vascongado; es la época más brillante en los anales docentes. La tercera época comienza en 1804 en que se revela a la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País de la dirección del Establecimiento, denominándose Real Seminario de Nobles, corriendo bajo la protección y autoridad del Gobierno; los años de 1810 a 1814 se llama Liceo Vascongado y los años 1822 a 1823 tuvo el título de Universidad. Atraviesa diversas vicisitudes al compás de los sucesos políticos del país, y en 1835 el ejército carlista se apodera del Establecimiento, destinándolo a hospital militar. La cuarta época del Establecimiento o sea su historia contemporánea dura de 1840 a 1880, también de cuenta del Gobierno<sup>17</sup>.

Aipamen horretan adierazten den laugarren etapari zegokionez, eta artikuloaren lehenengo zatian aztertu denarekin lotuta, honako gertaera berezi hauek azpimarratu behar ditugu: 1845 urtean, azaldutako Pidal Planak ezarritakoari obedituz, Bergarako eraikuntzan Gipuzkoako Bigarren Irakaskuntzaren Goi Mailako Institutoa ezarri zen. 1845-46 ikasturtean funtzionatzen hasi zen, bigarren irakaskuntzaren bost urteei zegozkien ikasgaiak eskaintzeko irakasle koadro osoa erakutsiz.

Modu horretan, laugarren epe hori ospe handikoa izan zen. Bergarako eraikuntza horretan, 1850eko irailaren 4ko Dekretoaren aginduz, Industria Eskola bat ezarri zen, Bigarren Irakaskuntzako Institutoari lotuta; 1851eko martxoaren 24an aipatutako Industria Eskolaketa Bigarren Irakaskuntzako Institutoak bat egin zuten, Erreal Mintegi Zientifiko-Industrialaren izendapena erakutsiz. Hala

---

17. MENDIOLA QUEREJETA, R. (1963): "La vida cultural en San Sebastián".

ere, une horretan oraindik ez zen industria ikasketekiko interes handirik agertzen, eta azkenean, 1860ko urriaren 1eko Erret-aginduz industria ikasketa horiek bertan behera geratu ziren.

Fomento Ministeritzaren 1868ko urriaren 21eko dekretoz, Espainian instrukzio arlorako garai berri bat ireki egin zen, bigarren irakaskuntzako ikastegiak sortzeko askatasunak ordezkaturako garai berri bat hain zuzen ere. Aipaturako dekretu horren ondorioz Espainian ikastegi asko ireki ziren. Gipuzkoako kasuan, une batez egoera horrek Donostian suposatu zuenari egin behar diogu erreferentzia: 1863 urtean Bigarren Irakaskuntzako Ikastetxe Pribatu bat sortzea baimendu zen, neurri handi batean Udaletxeak mantenduko zuena, baina Bergarako Instituto Ofizialaren menpe agertu behar zuena; puntu honi dagokionez, aipatu behar da sorkuntza berriko ikastetxe horiek ez zutela bizitza propiorik erakusten, bere zeregina guztiz agertzen baitzen Instituto Ofizialaren menpe.

1869 urtean, urte horretako urtarrilaren 14ko Dekretoz, Donostiako Bigarren Irakaskuntzako Ikastetxea Instituto Libre bihurtu zen, hasieratik munizipala izanik. Horrek Instituto Libre hori eta Bergarako ofizialaren arteko ia erabateko berdintasuna suposatzen zuen; Donostiakoari, oraindik ere, faltza zitzaion Batxilergo Graduen balio ofiziala bermatu ahal izatea.

Hasieran aipaturiko gertaera adierazgarriekin jarraituz, 1872 eta 1873 urteei ere erreferentzia egin behar diegu; Gipuzkoak, garai horretan, gogorki bizi izan zituen gerra karlistaren ondorioak, eta horiek modu gordinenean jasan zituzten lekuen artean Bergara aipatu behar dugu. Horrek egoera kritiko batetaz hitz egitera eramaten gaitu, gerrak, ordurarte Institutoan normaltasunez aurrera eraman ziren dozentzia lanak horrela jarraitu ahal izatea ekidin baitzuen. Horren ondorioz, Institutoko irakasleek beren zereginak utzi eta babesa bilatu behar izan zuten, babesgune hori hain zuzen ere Donostian aurkituz.

Benetan gertaera adierazgarri baten aurrean kokatzen gara, Bergarako Institutoa, behin behin-behineko moduan izan bazen ere, Donostiara trasladatu baitzen; 1873ko irailaren 6ko aktak horren berri ematen digu<sup>18</sup>.

Hala ere, hasiera batean behin-behineko izaera zeukan traslado hori azkenean behin-betiko bihurtu zitzaigun. 1880eko otsailaren 29ko Erret-Aginduak, bere hasiera Bergaran eduki zuen Institutoa behin-betiko moduan Donostian kokatuta geratzea ezarri zuen. Ordurako Donostia probintziako hiriburu agertzen zitzaigun, aspaldi agertzen zen erakutsitako lehengo lozorrotik aterata. Lehen aipaturako Erret-Aginduak Bigarren Irakaskuntzako Institutoa Garibai kalean kokatuta geratzea ezartzen zuen; honi dagokionez, eta hurrengo puntuan sakonago aztertuko dugun moduan, adierazi behar da aipaturiko Garibai kalean zegoen eraikuntza hasiera batean Donostiako Instituto Librearen egoitza izateko eraiki egin zela; hala ere, azpimarratu behar da ordurako Instituto Libreak, ofizialaren doakotasunak sortutako ekonomi arazoak zirela eta, bere ateak itxi behar izan zituela. Modu triste horretan bukatu zen hiritar-desioz jaiotako ikastegi baten historia.

---


18. Donostiako Usandizaga Institutoa. V. liburua.

Behin-behinekoa izan behar zuen traslado horren inguruan, egon ziren saia-  
kera batzuk berriro ere Institutoa Bergarara bueltatzeko; Diputazioa bera aget-  
zen zen ideia horren defendatzaile moduan. Baina 1892ko otsailaren 5eko  
Erret-Aginduak Gipuzkoako Institutoa Donostian behin-betiko geratzearen plan-  
teamendua berretsi egin zuen. Hala ere, Donostiako egoitzan aurkitzen zituzten  
espazio arazoak handiak ziren, Garibai kaleko eraikuntza horretan denbora  
gehiegi mantentzea benetan konplikatu egiten zuena; aipatu beharra dago erai-  
kuntza horretan ere 1879tik Arte eta Ofizio Ikasketak ere egiten zirela, eta hauek  
ikasle kopuru handia mugitzen zuten.

Hori ikusirik, behar berriei egokitutako beste egoitza bat eraikitzea erabaki  
zen; Institutoko bi batxilerrak izan ziren egoitza berriaren diseinu eta eraikuntza pro-  
zesua kudeatu egin zutenak. Nahiz eta eraikuntza berria egiteko eskaera  
1891eko azaroaren 18koa izan, horren inaugurazioa 1900 urtean izan zen. Mu-  
nizipioak, eraikuntza aurrera eraman ahal izateko, Amaran, 2.000 metro karratu-  
ko lursaila eskaini zuen.

Gipuzkoako Instituto Probintzialaren funtzionamendu praktikoari zegokionez,  
ondoko grafiko honetan Instituto Probintzialaren matrikulazio datuak ikus ditza-  
kegu:

**Gipuzkoako Instituto Probintzialean Matrikulatutako  
Ikasle Kopuruaren Garapena (1858-1882)**



Grafikan ikusten den garapenaren arabera, adierazgarria da 1868-69 ikasturtean matrikulatuta agertzen den ikasle kopuruaren jaitsiera. Honen justifikazioa 1868ko Irakaskuntza Askatasunaren Legean bilatu behar dugu, lehen adierazi dugun moduan horrek udal korporazio zein erakunde pribatuek ikastegiak sortzeko aukera eskaintzen baitzuen<sup>19</sup>. Horrek goi mailako eta bigarren irakaskuntzako ikastegiengatik sorrera ugaria suposatu zuen, horietako gehienak 1874an desagertuz, Errejimen Politikoaren aldaketarekin eta Monarkiaren berrezarpenarekin.

Aurreko grafikan islada erakusten duen beste gertaera bat 1863an kokatzen da, Donostiako Bigarren Irakaskuntzako Ikastetxe Pribatuaren sorrerarekin koinzidituz. Sorrera horrek, Donostiakoak ziren baina Bergaran ikasten zuten ikasle askok Ikastetxe Pribatu horretan ikasi nahiago izatea ahalbideratu zuen. Hipotesi hori egiazta daiteke grafikan agertzen diren 1874-75 ikasturteko datuak begiratzen baditugu, ikasturte horretan Institutoaren matrikulazio datuak berriro ere igo baitziren. Igoera horren arrazoia 1874an gertatutako Donostiako Instituto Librearen desagertzearekin justifika daiteke. Urtebete lehenago, adierazi den moduan, gerra karlistaren ondorioz, Bergarako Institutoa Donostiara traslatatua izan zen; 1872-73 ikasturtean ere, adierazitako gerrak sortutako egoera zaila zela eta, ikasle matrikulazio kopurua baxuagoa izan zen.

Beraz, azpimarratutakoaren ondorioz ziurta daiteke ezegonkortasuna izan zela Instituto Probintzialaren matrikulazio garapenean agertzen zitzaigun ezaugarri nagusia.

Instituto Probintzialari dagokion azterketa honekin bukatzeko, interesgarria da ikustea zein zen eskaintutako curriculum, ondoko taula honen bidez konprobatu ahal dena:

---

19. SANZ DÍAZ, F. (1985): Op. cit. 311. orr.

## Ikasketa Orokorrak

IKASGAIAK	58-59	60-61	61-62	63-64	64-65	65-66	66-67	67-68	70-71	71-72	72-73	73-74	74-75	75-76	76-77	77-78	79-80	80-81
Historia Sakratua, Erijio eta Moralaren 1. kurtsoa	•	•	•	•	•	•												
Latin eta Gaztelaniaren 1. kurtsoa	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•
Latin eta Gaztelaniaren 2. kurtsoa	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•
Gramatika Grekoa, latinaren ariketak, latin eta gaztelaniaren analisia	•	•																
Latin, gaztelania eta grekoaren analisi, itzulpen eta konposizioa	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•
Erretorika eta Poetika	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•
Geografia	•	•	•	•	•	•												
Historia	•	•	•	•	•	•												
Geometria eta Trigonometria	•	•	•	•	•	•			•	•	•	•	•	•	•	•	•	•
Aritmetika eta Algebra	•	•	•	•	•	•			•	•	•	•	•	•	•	•	•	•
Fisika eta Kimika	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•
Historia Naturala	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•
Psikologia, Lojika eta Etika	•	•	•	•	•	•			•	•	•	•	•	•	•	•	•	•

IKASGAIAK	58-59	60-61	61-62	63-64	64-65	65-66	66-67	67-68	70-71	71-72	72-73	73-74	74-75	75-76	76-77	77-78	79-80	80-81
Frantsesa, 1. eta 2. kurtsua	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•						
Aritmetikaren printzipio eta oinarriak		•	•	•	•	•						•						
Geometriaren printzipio eta oinarriak			•	•	•	•												
Grekoaren itzulpena		•	•	•	•	•												
Katixima eta Historia Sakratua							•	•			•	•						
Marrazketa Lineala							•	•	•	•	•	•						
Psikologia							•	•										
Geografia eta Historia Orokorra							•	•										
Fisiologia eta Higijenea									•	•	•	•	•	•	•	•	•	•
Lojika							•	•										
Espainiako Historia							•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•	•
Aritmetika, Algebra eta Geometriaren Printzipioak							•	•										
Étika eta Elijio oinarriak							•	•										
Latinarren hobetzea eta Literaturaren printzipioak							•	•										



IKASGAIAK	58-59	60-61	61-62	63-64	64-65	65-66	66-67	67-68	70-71	71-72	72-73	73-74	74-75	75-76	76-77	77-78	79-80	80-81
Historia Sakratua eta Kristau dotrina							•											
Ingelesa, 1. eta 2. kurtsoa								•				•	•	•				
Historia Unibertsala										•	•	•	•	•				•
Nekazaritza																		•
Frantsesa, Ingelesa eta Alemaniera, 1. eta 2. kurtsoa																		•

## 2.2. Donostia eta Bigarren Irakaskuntzako Ikasketak

Lehen adierazi dugun moduan, 1860. hamarkada baino lehenago Donostiak, sare probintzialaren konfigurazio orokorrean, ez zuen atentziorik deitzen; harresiz inguratutako hiri bat zen, eta horien barruan garatzen zuen bere eguneroko jarduerak, harresi horietatik kanpokoarekin erlazio gutxi erakutsiz. Beraz, sare probintzial horren konfigurazioari buruzko azterketa egitean, ia guztiek ahaztu egiten zuten, Mendiola Querejeta-k aipatzen digun moduan:

Nada nos extrañe, pues, que no destaque nuestro pueblo frente a otros que adquieren mayor celebridad en esta época. San Sebastián se hallaba alejada de los medios de comunicación, hasta el punto de que no cruzaba nuestra ciudad la carretera o camino real de la Corte a la frontera<sup>20</sup>.

Bere zabaltze prozesua ekarri zuen gertaerarik nagusia harresien eraispena izan zen, 1863 urtean gertatu zena. Gertaera horrek aipatutako zabaltze prozesu horri oso modu eraginkorrean lagundu zion, hori hazkunde demografikoan ere nabaritzen. Aurretiko puntuetan adierazi dugun moduan, Donostia bere lozorrotik esnatu egin zen, hortik aurrera jarduera ekonomiko, sozial eta kulturean murgilduz. Agertu ziren ere murgiltze prozesuan lagundu egin zioten gertaera garrantzitsu batzuk, hala nola komunikazio bideen garapena, industria instalakuntzak, eta batez ere Donostiak berak lortzea probintziako hiriburua izatearen ospea 1854 urtean. Donostiak erakutsi zuen zabaltze eta garapen prozesuaren bestalde, hori baino lehen benetan ospeaz disfrutatzen zuten beste hainbat leku geldialdi larriak murgilduta geratu ziren; horien artean lehenago aipatutako Bergara eta Tolosa agertzen ziren, hazkunde prozesuan oso atzeraturik geratu zirenak.

1870 inguruko garaia osperik handienekoa kontsideratu behar da; garai horretan Diputazioa Donostian kokatu zen.

Zabaltze prozesua aipaturiko urteetan eman bazen ere, egia da lehenik ere Donostiak interes handia erakutsi zuela irakaskuntza arloan paper garrantzitsu bat jokatu ahal izateko; eduki dugu adibidez 1839 urtean Donostian sortu zen Instituto baten berri; sorrera hori hiriko Udaletxe eta Komertzio eta Nautika Batzarrak aurrera eramane zuten. Industria, komertzio eta nautika irakasten ziren. Sorrera eman zenetik agertzen joan ziren arazo ekonomikoak zirela eta, 1848an Komertzio Batzarrak jakinarazi zuen hortik aurrera ezin izango zuela urtero eskaintzen zituen 6.000 erreale horiek eskaintzen jarraitu. Beraz, esan dezakegu aipatutako urte hori, 1848 hain zuzen ere, Institutoaren desagerpena suposatzen zena izan zela. Hala ere, 1851 urtean berriro ireki zen, Bergarako Institutoaren menpe geratzen zen Nautika Eskola moduan<sup>21</sup>.

Irakaskuntza arloan lehen adierazitako paper garrantzitsua bereganatzeko asmoz, aipatu behar da ere 1862 urtean, hiriko guraso askok osatutako Batzorde batek Bigarren Irakaskuntzako Ikastetxe Pribatu bat sortzeko proposa-

20. MENDIOLA QUEREJETA, R. (1963): La vida cultural en San Sebastián.

21. Donostiako Udal Artxibategia.

mena egin zuela. Une hartan ofizialtasuna erakusten zuen ikastegia Bergaran kokatuta zegoenez, Donostian sortuko zena Bergarakoaren menpe geratuko zen. Honetaz gain, ezin dugu ahaztu azkenengo horrek Valladolideko Unibertsitate Distritoarekiko pertenezia erakusten zuela, kasu guztietan Valladolideko Distrito horren Errektoreak emandako agindu guztiak errespetatu behar zituelarik. Honen ondorioz, erraz uler daiteke Bigarren Irakaskuntzako Ikastetxe Pribatu hori Donostian sortu ahal izateko ere, Valladolideko Errektorearen baimena lortu behar zela.

Aztertzen ari garen kasuan, Gipuzkoako Instituto Probintzialaren Zuzendariak, Telesforo Monzon jaunak, Donostian sorrera hori aurrera eraman ahal izateko eskaera jaso zuen, hori berehala Valladolideko Errektoreari pasatu behar izan ziolarik, ondoko aipamen honetan ikus dezakegun moduan:

El Director y empresario D. Canuto Ignacio Muñoz y Agote reúne las condiciones que para serlo exige el reglamento, y en cuanto al local, no pudiendo yo pasar a dicha ciudad a reconocerlo por mí, en atención a las muchas ocupaciones que con motivo de los exámenes me rodean, comisioné al profesor D. Carlos Uriarte, que reúne la cualidad de arquitecto de cuyo descargo, que V.S verá en el expediente, se desprende tan cabal como para el caso se requiere. En su consecuencia y en atención a la importancia de la población y a la circunstancia de ser la capital de esta provincia de Guipúzcoa, es mi dictamen que se debe conceder la autorización solicitada, y por lo tanto suplico a V.S que si también lo encuentra justo se sirva prestarle su apoyo<sup>22</sup>.

Aipamen honek oso modu garbian erakusten digu nola ezartzen ziren erakunde desberdinen arteko erlazioak; Gipuzkoako Instituto Probintzialak probintziako beste ikastegi guztiek, edozein asunto zela eta, erabili behar zuten zubia suposatzen zuen.

Eskaera egin ondoren, 1863ko abuztuaren 25eko Erret-Aginduz Donostiako Bigarren Irakaskuntzako eta Bigarren Mailako Ikastetxe Pribatuaren sorrera baimendu zen; izenean pribatu izaera erakusten bazuen ere, adierazi behar da hiriko Udaletxeak sostengatuko zuela. Lege aldetik, Canuto Ignacio Muñoz eta Agote jauna izan zen ikastegiaren ordezkaria; horrek Arteseko Batxilergoa eta Zuzenbide Zibil eta Kanoniko Lizentziatura erakusten zuen. Hasiera batean Ikastetxe horrek Trinitate kaleko 22. zenbakian kokatu zuen bere egoitza.

Ikastegi horren sorrerarekin batera, hasieran ikasle kopurua mugatua zen: 70 ikasle bakarrik onar zitzakeen. Hala ere, ikastegiaren sorrerak oso harrera ona eduki zuen, eta hasieratik lortutako emaitzak ere oso onak izan ziren; hori zela eta, Muñoz eta Agote jaunak, 1865 urtean, ikasle matrikulazioaren muga 80 ikaslekoa izatea eskatu zuen. Honekin erlazionatuta, Domingo de Ansoategui jaunak, Gipuzkoako Instituto Probintzialaren idazkari lanetan, Valladolideko Errektoreari bidali zion komunikazio bat ere erakuts dezakegu, ondoko hau adierazten duena:

---

22. Valladolideko Unibertsitate Arxibategia, 1244. legajoa.

...la instancia de D. Canuto Muñoz y Agote, director y empresario del Colegio privado de segunda enseñanza de la ciudad de San Sebastián, por la que solicita la ampliación de la matrícula de aquel colegio hasta el número de ochenta. Cumpliendo pues con un deber de Reglamento al dirigir a V.S dicha instancia, no puedo menos de manifestarle que atendida la categoría de la población donde se halla el Colegio, su capacidad material y los buenos resultados que ha obtenido en los dos años que lleva de existencia dando una enseñanza satisfactoria; el crecido número de alumnos pobres que el Ayuntamiento tiene el derecho de incluir, y que el aumento que se solicita es solo de diez matrículas más, soy de parecer de que debe acceder a lo solicitado, y en este sentido suplico a V.S tenga a bien elevarla a la Superioridad<sup>23</sup>.

Trinitate kalean kokatuta geratu zen ikastegiaren funtzionamendu onaren beste adierazgarri moduan, esan behar da 1866 urteko azaroaren 12an dataturiko baimen baten bidez Fomento Ministeritzako Zuzendaritzak onartu zuela Donostiako Ikastetxe hori bigarren mailakoa izatetik lehengo mailakora izatera pasatzea. Urtebete beranduago, 1867an, ikasle kopurua 100 ikaslekoa izatera pasatzea ere baimendu zuen.

1869an, urte horretako urtarrilaren 14ko Dekretoak adierazitakoa kontuan hartuz, Fomento Ministeritzari Bigarren Irakaskuntzako Ikastetxea Instituto bihurtzea eskatu zitzaion. Ministeritza horren Zuzendaritzak, 1869ko apirilaren 30ean Valladolideko Errektoreari bidalitako komunikazio baten bidez, onartu egin zuen ikastegia Instituto bihurtzea, modu horretan Donostiako Instituto Librearen izen-dapenarekin agertuz eta munizipala izanik bere lehenengo urratsetatik.

1869ko ekainaren 2an baimendu zen Donostiako Instituto Libreak luzatutako batxilergo tituloetan hiriko Udaletxearen zigilua agertzea, horren bidez alkatearen oniritzia ere bermatzen zelarik. Hala ere, luzatutako titulo horiek bakarrik balio akademikoa erakusten zuten, ez zuten balio ofizialik; azkenengo hori eduki ahal izateko, Instituto Ofizialean birgainkuntza froga bat egin behar zen.

Instituto Librearen jarduerari zegokionez, lehen aipatutako funtzionamendu ona eta horren ondorioz agertzen zen gero eta matrikulazio handiagoak, ikastegiak laster espazio arazoak erakustea suposatu zuten; beharrezkoa izan zen Instituto Librerako egoitza berri bat bilatzea, modu horretan eraikuntza berri bat prestatzeari ekin zitzaiola, Garibai kalean hain zuzen ere. Egoitza berrira 1873 urteko udan pasatu zen, 1873-74 ikasturteari egoitza berri horretan hasiera emateko.


Paradoxikoki, eta orain arte aipatutako guztiarekin kontrastatuz, egoitza berriaren inaugurazioa baino urtebete beranduago, Donostiako Instituto Libreak bere ateak itxi behar izan zituen. Aurreko puntuan aztertu den moduan, Gipuzkoako Instituto Probintziala gerraren ondorioz Bergaratik Donostiara trasladatzea eta Instituto Ofizial horren doakotasunak Donostiako Instituto Libreak ordurarte erakutsi zituen ekonomi arazoak areagotzea suposatu zuen.

---

23. Ibidem

Donostiako Bigarren Irakaskuntzaren Ikastetxea eta ondorengo Instituto Librearen ikasleriari zegokionez, interesgarria da ikastegiaren funtzionamendu praktikoa ikuspegi kuantitatibo batetik aztertzea ahalbideratzen duten datu batzuk eskaintzea; horretarako, ikastegiaren idazkariak, Esteban Aranguren jaunak, egoitza berriaren inaugurazio egunean irakurritako memoria batetik ondoko ikasle matrikulazio datu hauek atera ahal izan ditugu<sup>24</sup>:

**Donostiako Bigarren Irakaskuntzako Ikastetxe eta ondorengo Instituto Librean matrikulatutako ikasle kopuruaren garapena (1863-1873)**



IKASTURTEA	SUSPENTSO KOPURUA
1863-64	3
1864-65	1
1865-66	2
1866-67	1
1867-68	1
1868-69	15
1869-70	4
1870-71	2
1871-72	4
1872-73	0

24. Donostiako Udal Liburutegia. Estéban Arangúren jaunak irakurritako memoria.

Ikastegiaren funtzionamendu onarekin jarraituz, Idazkariak berak memoria-  
ren irakurketan oso modu berezian azpimarratu zuen moduan, ondoko aipamen  
honi ere erreferentzia egin behar diogu:

el Instituto de San Sebastián puede gloriarse de haber tenido en un decenio  
menor número de suspensos, absoluta y relativamente, que ninguna otra  
Escuela literaria de España, como puede comprobarse por un estudio compara-  
tivo de las estadísticas publicadas en las Memorias de aperturas de los cursos<sup>25</sup>.

Donostiako Bigarren Irakaskuntzaren Ikastetxea eta ondorengo Instituto  
Libreak oso bizitza luzea eduki ez bazuen ere, irakaskuntza arloan hiri horretako  
erreferente garrantzitsua izan zen, hiri horretan bertan ospe handia erakusten  
zuten pertsonak hor ikasi zutelarik.

Zoritxarrez, behin baino gehiagotan egindako ahaleginak alferrikakoak izaten  
ziren udal ekimenak probintziaren laguntza jasotzen ez zuenean. Probintziak ofi-  
zialtasuna erakusten zuten ikastegietan kokatzen zuen bere arreta, eta kasu  
horretan Bergarako Institutoa zen hori erakusten zuena. Ikuspegi ekonomiko  
batetik pentsa daiteke probintzia berean bi instituto mantendu behar izatea ez  
zela errentagarria, eta bien arteko lehiari atentzio maila banatzeko garaian, argi  
zegoen ofiziala garaile aterako zela.

Gertaera horiek guztiek, esan den moduan, azkenean Donostiako Instituto  
Libreak bere biziraute borroka horretan amore ematera behartu zuten. Ezin da  
esan borroka hori Instituto Ofizialaren kontra izan zenik, ekonomi arazoek kon-  
trako borroka bat izan zela baizik. Hala ere, eta lehen ere adierazi den moduan,  
Instituto Ofiziala Donostiara trasladatzeak ez zion inolako mesederik suposatu.

Instituto Librea desagertu ondoren bigarren irakaskuntzak bere jarraipena  
eduki zuen Instituto Probintzialaren bidez, sor zitezkeen oztopoei aurre egiteko  
aukera handiak erakusten zituen bakarra. Modu horretan Donostiako hiriak ber-  
matuta zeuzkan bigarren irakaskuntzako ikasketak, baina bidean ikasketa horien  
benetako jatorria suposatu zuen ikastegia galdu zuen, udal ekimenetik sortua  
izan zen ikastegi bat.

## BIBLIOGRAFIA

ARTOLA, M. (1974). *Partidos y programas políticos, 1808-1936*, t.I. Madril: Aguilar.

DIAZ DE LAGUARDIA, E. (1988). *Evolución y desarrollo de la enseñanza media en España  
de 1875 a 1930. Un conflicto político-pedagógico*. MEC-CIDE.

Donostiako Udal Liburutegia: Esteban Aranguren jaunak irakurritako memoria, 5-10. orr.

Donostiako Usandizaga Institutoa, V. liburua.

GARATE OJANGUREN, M. (1976). *El proceso de desarrollo económico en Guipúzcoa*. San  
Sebastián: Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Guipúzcoa.

---

25. Ibidem, 19.orr.

*Instrukzio publikoko araudi orokorra*. Madril, 1821.

MENDIOLA QUEREJETA, R. (1963). *La vida cultural en San Sebastián*.

PUELLES BENITEZ (1991), Manuel de. *Educación e Ideología en la España Contemporánea (1767-1975)*. Madril: Labor.

SANZ DIAZ, F. (1985). *La segunda enseñanza oficial en el siglo XIX*. MEC.

SECO SERRANO, C. (1968). Introducción al t. XXVI de la Historia de España (dirigida por Ramón Menéndez Pidal). Madril: Espasa-Calpe.

Valladolideko Unibertsitate Artxibategia, 1244. legajoa.

VIÑAO FRAGO, A. (1982). *Política y Educación en los orígenes de la España Contemporánea*. Madril: siglo XIX.